

Ipurterreko sarietan NESKAK NAGUSI



Txikitto!

LH ETA DBHKO IPUIN LEHIAKETA
XVII. IPURTERRE 2011

...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean, Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XVI. edizioa antolatu du. LH eta DBHko D eta B ereduko ikasleek hartu dute parte eta, guztira, 2.011 ipuin jaso dira. Hurrengo orrialdeetan lehiaketan sarituak izan diren ipuinak irakurtzeko aukera izango duzue.

ibaizabal

aterbe elkar

ere in  YRAOLAGOITIA

Mega

ARGITARATZAILEA: " ...eta kitto!" Euskara Elkartea, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776. ERREDAKZIO KONTSEILUA: Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak. ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte.

ERREDAKZIOA ETA MAKETAZIOA: Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. ARGAZKIAK: ...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. AZALEKO ARGAZKIA: Ekhi Belar. COPYRIGHT-A: Txikitto! LEGE-GORDAILUA: SS-1111/96




Eibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Margarita behia

Behin batean Margarita izeneko behi bat zen. Ile gutxi zeukan. Margarita behia baserri batean bizi zen. Egun batean lore asko jan zituen eta esnea berdea ateratu zitzaion. Bere jabea konturatu zenean beste baserri batera eraman zuen. Beste baserriko baserriarrak oso ondo zaindu zuten behia eta arraultza egosiak ematen zizkion jateko. Handik bi astetara esne oso txuria ematen zion jateko eta bere lehenengo jabea enteratu zenean, berriz ere behia berarekin eramatea nahi zuen, baina baserriko animalia guztiak berarekin oso haserre zeudenez, be-



rari koxka egiten hasi ziren eta korrika batean joan zen. Handik aurrera zoriontsu bizi izan ziren.

LH 1 zikloa (d eredua)



Ana
Oiarzabal Guisasola

Zaldia eta bere lagun zebra

Behin batean, zebra bat zegoen. Bere izena Marratxu zen. Egun batean zaldi batekin topatu zen, Felipe izena zuena. Felipek esan zion: "Zeinen polita zaren! Marra oso politak dauzkazu, batzuk zuriak eta beste batzuk beltzak. Nik nahiko nituzkeen eduki". "Zu ere oso polita zara", esan zion Marratxuk. "Niri zure ile beltz-beltz eta luzea gustatzen zait. Gainera zure ahotsa oso gogorra da. Badakizu abesten?". Orduan Felipek erantzun zion: "Beno, pixka bat, baina lotsatia naiz". "Niri ere abestea gustatzen zait", esan zion Marratxuk. "Zergatik ez dugu abesten pixkatxo bat?". Den-



bora pasa zen eta talde bat egin zuten, oso ezagunak egin ziren eta leku askotan ibili ziren euren abesti politak abesten.

LH 2 zikloa (b eredua)



Miriam
Rosales

Tximeleta eta erlea



Duela asko tximeleta bat eta erle bat etsaiak ziren. Baina egun batean tximeleta gaixo jarri zen, euriaren erdian laguntza eskatu zuen, baina inork ez zion entzun. Egunak pasa ziren eta erleak ikusi egin zuen, eta konturatu zen laguna izan behar zela. Orduan erleak ezia eman eta sendatu egin zen. Tximeletak barkamena eskatu eta lagunak izan ziren betirako.



LH 1 zikloa (b eredua)



**Miren
Elorza**


Txinatik Euskal Herrira

Bazen behin neskatxa alai eta bihurri bat. Txinan bizi zen bere guraso eta anai-arrebekin. Haimaika urte zituen eta abenturazalea zen. Egun batean bere lagunekin jolasten ari zela lurrikara ikaragarri bat sortu zen bere herrian. Zoritxarrez bere gurasoak desagertu egin ziren.

Txinatik urruti dagoen herri txiki batean, bazegoen familia bat aspalditik ume baten zain zegoena. Herri hori Euskal Herria zen. Egun batean egunkarian etorri zen neska txinatar batek familia galdu eta herria behar zuela. Bere izena Lili zen. Familia honek he-

gazkina hartu eta Txinara joan zen. Orduan Lili adoptatu zuten eta Euskal Herrira ekarri. Hasieran pozik zegoen, baina gero faltan botatzen zuten bere familia. Guraso euskaldunek hori ikusita, Txinara bueltatzea proposatu zioten. Lili oso pozik jarri zen.

Dirua aurreratu eta hegazkinez Txinara joan ziren bila. Hasieran harresian bilatzen hasi ziren, gero tenpluan saiatu ziren eta azkenean kobazulo sakon batean aurkitu zituzten. Eta Liliren benetako gurasoak eta anai-arrebak pozik zoratzen jarri ziren eta Euskal Herriko gurasoak triste itzuli ziren.



LH 2 zikloa (d eredua)



**Maddi
Beraza**



Gabonak

Neguko egun hotz hauetan habiatik ez naiz askotan irten, nahiz eta bertan egoteak aspertzea eta bakartasunean murgiltzea dakartzan. Kanpoan freskoegi dago nire lumentzat, baina gosegatik bidaia txikiren bati hasiera ematea pentsatu nuen. Pentsatu eta egin. Baina nora joan ahoa goxotzeko jatekoaren bila?

Gabon giroa zela-eta etxebizitzetako leihoetara gerturatzea bururatu zitzaidan, inozentziaz eta ilusioz beteriko haurren batek ogi zatiren bat emango zidalakoan. Halaxe, nire hegoak astindu eta nire habiatik gertu zegoen etxe handi eta argitsu batera hurbildu nintzen. Leihotik begiratu eta bazkari opa-

roa zuten mahai gainean. Urdaiazpikoz beteriko platerak, zainzuriak, pateak, pintxo ugariak, saldaz beteriko zopa-ontzi bat, kolore desberdinetako barazkiz beteriko ontzia, labetik ataratako arrain samurra eta plantxan egindako haragi xerra ikaragarriak nituen begi aurrean.

Ume kolore-gorri alai bat ikusi nuen korrika mahai inguruan, hari begira geratu nintzen, eta halako batean, han nengoela konturatu zen. Jolaserako gogoa zuen antza denez eta niregana hurbildu zen mahaian eserita zegoen jendea ahaztuz. Eskuan ogi kozkor bat zeukan. Birrindu, leihoa ireki eta eman egin zidan.

Etxe hartatik nahikoa lortu nuela-eta beste batera joatea pentsatu nuen. Halaxe, hegoak lanean jarri eta beste norabait abiatu nintzen. Oraingo honetan, etxe txikitxo batera heldu nintzen, ez zegoen argi handirik. Leihora gerturatu eta barruan ia ez zen ezer ikusten. Kandela bi zituen mahaitxo bat ikus nezakeen. Mahaiaren inguruan lau pertsona burumakur, eta tartean, azal zuriko nezkatxa bi, poztasun gabeak, tristuraz josiak. Mahai gainean kandela bi eta lau plater zituzten eta plateretan hori koloreko pasta sendo antzeko zerbaite. Pena sentitu nuen. Ez nekien zer egin euren aurpegiak alaitzeko. Batzuek hainbeste eta beste batzuek hain gutxi...

Gaua lanean jardun nuen. Ezin nuen ezer egin gabe habiara lotara joan. Aberatsei hartu eta behartsuei ematen igaro nuen gaua. Hotza pasa nuen, noski. Baina hurrengo egunean, euren etxeko leihoaren ondoan esnatu nintzen eta pertsona haien aurpegia (naskatxa biena batez ere) ikusi nuenean, jasadako hotz guztiak joan zitzaizkidan. Bere irribarreek bete eta beratu baitzuten nire bihotza.

Harriturik gelditu nintzen. Ez zekiten nola bete zen janariz bere egongela. Halako batean, neskatxa txikienak leihora begiratu eta hantxe ikusi ninduen. Hark ni izan nintzela pentsatu zuen. Gurasoek, berriz, beren buru karratua zela-eta, ezinezkotzat jo zuten. Hala ere, neskatxa gazteenak niregana egin zuen, leihoa ireki eta besoetan hartu ninduen. Bere zuritasunean epela zegoen. Maitasunez beteriko besarkada bat eman zidan. Ni bere maskota izatea nahi zuen. Gurasoek, ordea, ezin zuten beste aho bat mantendu, nahiz eta nire laguntzaz jateko pixkat bazuten. Hala ere, umetxoari egun batzuk baino ez nituela igaroko esan zioten. Jatekoa murrizten zitzaienean, alde egin beharko nuela.

Horrela, egun batzuk beraienkin igaro nituen, eta joateko eguna iritsi baino lehen, ideia bat bururatu zitzaidan. Nik ez nuen handik joaterik nahi. Izan ere, habian bakarrik, aspertuta, gosez eta hotzez egoten nintzen. Familia hark jateko beharra zeukan, zergatik ez nintzen euren txori bihurtzen? Eta halaxe egin nuen. Nik eurei jatekoa eta osasuna nekarzkieen eta beraien epeltasuna eta maitasuna.



LH 3 zikloa (d eredua)

**Jone
Arakistain**



Izarrak

Bazen behin, neska bat izarrak oso gustoko zituena. Neskak Nagore zuen izena eta lau seme zituen: mutil bi eta neska bi. Izar usoen gauetan bera eta bere semeak leihoan jartzen ziren izar usoak ikusteko. Baina Nagorek benetan gustoko zuen gaua San Juan gaua zen. Nagorek umeak jaiotzerakoan zervan izar bat pizten zela esaten zuen, euren izarra, alegia. Eta martxan jartzen zirela zerutik lurreraino San Juan gauean euren jabeak ikusteko eta opari bat lagatzeko. Semeek, eta Nagorek ere, urduri itxaroten zuten gau hura eta azkenean heldu zen itxarondako gaua. Umeak lotan zeuden bitartean, Nagore izarrei itxaroten zegoen eta bat-batean doinu azkar-azkar bat entzun zen eta hau esan zuen: "Izar bat dator! Ura bezain azkar!", eta hori esan eta gero izar bat sartu zen eta gira-bira egon zen Nagorek harrapatu zuen arte. Nagorek oparia ikustean hau esan zuen: "Itsaso txiki bat!" Barruan euriaren ura, edaten dugun ura eta ibaie-tako urak nola itsasoetan nahasten ziren eta horrela bere lehenengo semeak itsaso txiki bat eduki zuen. Bigarren izarra ere etorri zen eta izarrek ametsak apaintzen zituzten koloreak utzi zizkioten. Hirugarrenak haizea ekarri zion eta laugarrenak... beno, laugarrena ez zen etorri, eta hurrengo egunean ez zegoen oparirik laugarren semearentzat. Oso triste jarri zen umea eta ez zuen ez gosaldtu, ez bazkaldtu, ezta afaldtu ere, baina gauean bat-batean leihotik paper distiratsu bat sartu zen eta hau zegoen idatzita: "Ezin izan nuen atzo zure etxera joan, baina hau da zure oparia". Nagorek behera begiratu zuen,



baina han ez zegoen oparirik. Orduan, paperean berba gehiago agertu ziren: "Paper hau da zure oparia. Nahastu". Nahastu? Galdetu zuen Nagorek eta orduan ideia bat eduki zuen. "Nahastu opari guztiak!" esan zuen eta pote batean papera botu, ur pixka bat eta lur pixka bat botu eta haizearekin nahastu zituen osagai guztiak eta... mila desiren sua agertu zen. Laugarren oparia! Eta hortik aurrera izarrak beti etorri ziren San Juan gauean. Eta lur, haize, ur eta su pixka batekin izarrek eta nik agur esaten dizuegu.

LH 3 zikloa (b eredua)

**Laura
Alvarez**



Lagun maitea:

Badakit sarritan galdetu izan didazula zergatik ez ote dizudan euskaraz berba egiten.

Nik sarritan erantzun dizut: lagun guztiek erdaraz berba egiten didatelako, beraz erderaz berba egitera ohitu naiz. Baina, hala ere, zuk dakizun bezala, Eibarrera etorri nintzenean berba egin nuen lehen hizkuntza euskera izan zen.

Urte askoan euskera oso ondo menperatu eta ondoren gaztelania ikasten hasi nintzen menperatu arte, baina denboraldi hartatik gaur egun arte berba egiten dudana hizkuntza bakarra zer da, gaztelera.

Honekin batera, euskera ez erabiltzeaz asko damutzen naizela nahi dizut esan, zeren euskaldunak ez dira bakarrik hemen jaioetakoak, baizik eta euskeraz berba egiten dutenak.

Nahiz eta ni euskalduna ez izan, euskara gehiago berba egiten baldin badut, euskaldun bezala onartuko dut neure burua.

Euskera gure artean galtzen ari da, erru bakarra guk daukagu euskera ez erabiltzearen lehen bezala. Nire lagun maitea, zuk betidanik esan didazu euskaraz berba egiteko, eta gutun honen bidez nahi dizut esan hemendik aurrera edo gaurtik aurrera saiatuko naizela euskara gure artean gehiago berba egiten eta aberasten, saiatuko naiz euskaraz berba egiten, nik berba egiten dudana hizkuntza baino gehiago. Nik ahal dudana egingo dut.

Azkenik nahi dizut esan asko maite zaitudala eta gutun hau bidaltzen dizut jakin dezazun euskaraz berba egingo dudala eta faltan botatzen zaitudala, baina zure falta euskerak beteko duela eta euskeraz berba egiten dudana bakoitzean zu egongo zarela nire pentsamenduetan, lagun maitea. Bi muxu eta besarkada bat.

Zuriñe.

DBH 1-2 (d. eredu)

**Sukaina
Basri**



Lagun maitea:

Badakit sarritan galdetu izan didazula zergatik ez ote dudan euskeraz berba egiten. Gaur beti bezala zutaz oroitu naiz, eta egunero egiten zenidan galdera hau ere etorri zait burura, ea ez naizen euskeraz mintzatzen. Betidanik izan zara euskaldun peto-petoa, eta hori da hain zuzen ere niri erakutsi zenidana. Arbaso maitea, beti izango zaitut bihotzean. Zu izan zara gure senitartekoak euskeraz berba egitera bultzatu dituen, zu izan zara gu euskaldun bihurtu gaituena, eta Euskara izena duzu. Beti zaude gure bihotzetan, baina mintzo garen orduan ez zaitugu ezpainetan. Sarri askotan izaten dugu gogoan zuk erakutsi zeniguna, baina gogoeta Gure alboan zaude, nahiz eta ez zaitzakegun ikusi, eta horrek zirrara eragiten du gure barrenean. Zirrara hori ezinezkoa da hitzez hitz azaltzea, sentituz bakarrik lor dezakegu eta, gure inguruan egon zaitezten. Aspaldi honetan gure mihia bakarrik mugitzen da, berba egiten dugun era kontuan hartu gabe, sentitu gabe. Esan dezakegu mihia bakarrik dantzatzen, eta ez duela bihotzaren laguntzarik. Azkenik esan nahi nizukeena gugandik urruntzen hasia zarela da, arrastorik utzi gabe desagertuko zarela, gure oroimenetan geldituko zarela eta gure ondorengoek ez dutela zuk sortzen duzun zirrara hori ezagutuko. Orain ikusten dut zein den gu euskaldunok bateratzen gaituen gauzarik garrantzitsuena, Euskara zarela; erakutsi zeniguna erabiliz eta sentituz lortuko dugula gure ondorengoengana iritsi zaitezten. Adiorik ez, beste bat arte.

DBH 3-4 (d eredu)

**Olaia
Sarasola**



SARI BANAKETA

Eguaztena ezin hobeto hasi zuten Eibarko hainbat ikastetxetako haur eta gazteek. Goizeko 10etan hasita, Ipurterre ipuin lehiaketaren sari banaketa ekitaldia hasi zen. Liburu, koaderno eta abarrak ikastetxean laga eta Hezkuntza Esparrurako bidea hartu zuten.

Zortzi irabazleendako sariak prest, urteroko moduan bestelako sorpresarik ere bazuen aurrikusita ...eta kitto! Euskara Elkarteak: magia ikuskizuna.

Kidam magoak behin baino gehiagotan behar izan zuen bertan batutakoen laguntasuna, baina, egia esan,



MAGIKOA

laguntzaileak lortzeko arazorik ez zuen izan. Kartak desagertarazi, gal-tzerdiak uso bihurtu, paperarekin burukoa eta eskuko zorroa egin eta laguntzaileetako bat airean laga zuen. Ezin hobeto pasatu zuten zortzi irabazleek gelakideek Kidam magoak egin dako jokoekin.

Eta tartean, zortzi irabazleek euren saria jaso zuten. ...eta kitto! Euskara Elkarteak, lerro hauen bitartez, esker ona adierazi nahi die laguntasuna eskaini duten Ibaizabal, Elkar eta Erein argitaletxeei eta Eibarko Mega eta Yraolagoitia liburudendei.



MARGOTU KAMISETA!

Sanjuanetan erabiliko duzun kamiseta margotzea nahi duzu? Jarraitu pausu honek eta kamiseta izugarria izango duzu...

MATERIALA:

- Pintzel fina, ile finekoa.
- Kotoizko kamiseta zuria.
- Toalla.
- Karpeta edo kartoia.
- Urez betetako potea.
- Pintzelak.
- Kalkatzeko papera.
- Marrazki bat.

PAUSOAK:

- 1-Kartoia edo karpeta toallarekin estali ondoren, kamiseta barruan sartu ondo luzatuta, marrazterakoan ez zimurtzeko eta atzealdea ez zikintzeko. Kalko papera kamiseta gainean ipini aukeratutako marrazkiarekin eta kalkatu.
- 2-Arkatz batekin presioa egin marrazkia kamisetara pasatzeko.
- 3-Horria berdearekin perfilatzen hasi. Kontuz ibili tantanik ez erortzeko eta eskuak ez zikintzeko (kamiseta nahi gabe zikindu dezakezu ostean). Lorea arrosaz eta barrukoa horiz margotu. Petaloak arrosa tonu leunago batekin margotu eta tximeleta margotzen hasi ondoren.
- 4-Tximeletaren gorputza eta hegoak margotu. Begia egin eta itzalak margotu.
- 5-Amaitzeko, bakoitzaren izenarekin apaindu daiteke kamiseta. Lan hau egiteko ez da denbora asko behar, eta oso dibertigarria eta erraza da gainera. Margoa lehortzean ez pentsatu gehiago eta irten kalera kamiseta berriarekin.



3




4



5



Munstroo hiria suntzatzen ari da.



KARRPOON, ERABAN XIANTO!

POOPY

PLAF!

BROOOOMM!


Alber Martin



Nik LAGUNBUko diruud!!!



GAMBITU BUK ZOLKOO.!



ONGI!!!

